**Hiztegi azterketa** — *Zorion perfektua.* Anjel Lertxundi. Alberdania.

Izen-deiturak:........................................................................................ Maila-taldea: ....................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **ezkaratza** ........................ | «Hala ere, eskailerak eta **ezkaratza**, beti bezala, erdi ilunpetan, argi kaskarra egiten baitzuen bonbilla ilaun bakartiak.» |
| **ilaun** ........................ | «Hala ere, eskailerak eta ezkaratza, beti bezala, erdi ilunpetan, argi kaskarra egiten baitzuen bonbilla **ilaun** bakartiak.» |
| **kontrakar** ........................ | «...eskuina baldartu egiten baitzait eta **kontrakarrean** segitzen baitio ezkerrari.» |
| **liztor** ........................ | «Euri usaina zerion ilunabarrari, hodei goibelez zegoen zerua belzturik eta **liztor** haserretuaren soinua egiten zuen haizeak...» |
| **eskumen** ........................ | «...eta kolpea saihesteko, esku bat luzatzen du **eskumenean** duen helduleku bakarrerantz...» |
| **zirimola** ........................ | «Haizea trumilka dator etxe arteetatik: plastikoak, harea, hosto ihartuak **zirimola** eroan.» |
| **orban** ........................ | «Ez dakit zenbat denbora egin nuen gorpuaren aurrean, odolak zoruan utzitako **orbanari** begira..» |
| **ele** ........................ | «**Elea** bero hasten dira ertzainak, atzera!» |
| **labezomorro** ........................ | «...etxe zahar hutsean **labezomorroak** pareta zuloetatik ateratzen diren gisan.» |
| **ahitu** ........................ | «**Ahitu** zaio zigarroa eta botatzen du airera.» |
| **mutxikin** ........................ | «**Mutxikinak**, behea jotzean, txinparta txiki batzuk ateratzen ditu.» |
| **segail** ........................ | «Hurbiltzen da argazkilari bat ere, **segaila** eta moderno itxurakoa...» |
| **tiradera** ........................ | «**Tiradera** galduren batean gordeta behar duen argazki zahar bat gogoratu nahi izaten dugunean bezala...» |
| **marguldu** ........................ | «...baina ez nekien tiroen eraginez **marguldu** zitzaion aurpegia, ala berezkoa zuen begitarte argizarizkoa.» |
| **oldoztu** ........................ | «Ez zuen askorik iraun nire bakardadeak eta **oldozteak**:...» |
| **uzkur** ........................ | «...urte gutxi zeramatzan herrian; **uzkurra**, isila, ez omen zuen lagunik...» |
| **kinkun** ........................ | «Halatan, sudur-ahots **kinkun** bat nagusitzen da nire atzeko jardun burrunbarian.» |
| **erretxindu** ........................ | «Betikoa!, **erretxindutzen** naiz neure baitan.» |
| **errezel** ........................ | «...leihora begiratzen dut, eta **errezelen** atzean norbait dagoela iruditzen zait.» |
| **ahuldade** ........................ | «...**ahuldadea** iruditzen zait, kontrarioari kartak erakustea bezala.» |

| Hiztegi azterketa | — | *Zorion perfektua.* Anjel Lertxundi. Alberdania. |
|---|---|---|

Izen-deiturak:................................................................................................ Maila-taldea: ....................
Testuinguruua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **lanpas** ........................................ | «Oinetako azpiak igurzten ditut ate aurreko **lanpasean**.» |
| **partitu** ........................................ | «Ez nuen ikusitakoa inorekin **partitzeko** ez kemenik ez barrenik.» |
| **piko** ........................................ | «Ene burua, amildegi **piko** baten aurrean.» |
| **garondo** ........................................ | «Haren hatsaren beroa **garondoan** berriro; amaren ileak sudurra kilikatzen dit.» |
| **marruskatu** ........................................ | «Malkoak lehortu eta musuzapia **marruskatzen** hasi nintzen, kabitu ezinez.» |
| **aitatu** ........................................ | «Sekula **aitatzen** ez dena baina beti present dagoena.» |
| **destaina** ........................................ | «...ezpainak estuturik, galtzerdia botatzen zuen nire ohe gainera **destainazko** keinu lehor batez.» |
| **arrimu** ........................................ | «...aita noiz etorriko dago, nire trantze txarra elkarren **arrimuan** hobeto eramango duelakoan.» |
| **nasai** ........................................ | «Argaldu egin zara azken boladan, eta beldur nintzen ez ote zitzaizun **nasaiegi** geldituko.» |
| **antzu** ........................................ | «...**antzu** eta tristea irizten bainion ikasketen garain ezagutu nituen hainbat irakasleren jardun errutinazkoari.» |
| **armagnac** ........................................ | «Gau hartan, elkarrekin afaldu genuen eta kopa beretik edan genuen **armagnaca**.» |
| **ozta-ozta** ........................................ | «**Ozta-ozta** ordaintzen nituen neure gastuak, baina ez nuen gurasoen laguntzarik nahi.» |
| **trenpe** ........................................ | «...nire karrerari kalte baino on gehiago ekarri zion tentsiorik gabeko **trenpe** espirituala.» |
| **zipitz ere** ........................................ | «Ez diat deus kontatuko, ez huke **zipitzik ere** ulertuko.» |
| **zuritu** ........................................ | «Baina gauza batek bakarrik **zuritzen** du, ezerk zuritzekotan...» |
| **xalo** ........................................ | «**Xaloa** omen naiz, bihotz onekoa, edozeinekin fidatzen naizena...» |
| **deus** ........................................ | «Nekatuta nago, ez dut **deusetarako** adorerik.» |
| **ezmez** ........................................ | «**Ezmezean** zegoen aita, begiak ezker-ezkuin mugitzen zitzaizkiolarik argibideren baten bila.» |
| **hausnar** ........................................ | «...jartzen nintzen nire barne-mugimenduen aitarenganako eta amarenganako desberdintasunen **hausnarrean**.» |
| **karranpa** ........................................ | «...**karranpa** batek jota baino agudoago.» |

**Hiztegi azterketa** — *Zorion perfektua.* Anjel Lertxundi. Alberdania.

Izen-deiturak:............................................................ Maila-taldea: ....................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **mainatu** ........................................ | «Zein dotorea ni bezalako alaba bakar –eta **mainatu**– batentzat pianoa jotzen ikastea!» |
| **okagarri** ........................................ | «Neska baten xalotasuna eta krimen **okagarri** baten aurpegia kontrajarri genituen...» |
| **sordina** ........................................ | «Erraza da jotzen ari naizen pieza, eta ez diot **sordinaren** pedalari eman behar sukaldeko jarduna entzuteko.» |
| **moila** ........................................ | «Hurbil samar izan dira. **Moila** aldean edo. Ospakizunen bat izango da, eta lasaitu egiten naiz.» |
| **burkoa** ........................................ | «**Burkoa** tolestu, eta haren kontra jarrita esertzen naiz.» |
| **izpiliku** ........................................ | «Begiak ixten ditut, **izpiliku**-usainaz gozatzeko.» |
| **atximurkada** ........................................ | «Urdaileko mina, bat-bateko **atximurkada** batek ziztatuta: hamabi ordu dira hilketa gertatu denetik...» |
| **beita** ........................................ | «Niri **beita** ematen ari zara, besterik ez: beharrezkoa nauzu egunkariko zuzendariaren aurrean presioa egiteko.» |
| **mengel** ........................................ | «...baina ez da konturaten hizketarako modu **mengel** horixe egiten zaidala eramangaitzena.» |
| **txiripa** ........................................ | «...**txiripa** hutsa izan zen argazkiarena eta zu han tokatzearena, entzun?» |
| **begitandu** ........................................ | «Ama **begitantzen** zait gortinen atzetik begira.» |
| **zinkurinka** ........................................ | «Eskaileretan behera noala, ama sentitzen dut etxeko atean, **zinkurinka**.» |
| **lerde-pertz** ........................................ | «Zer dira ba **lerde-pertzak**!» |
| **marranta** ........................................ | «Eztula egiten du, **marrantak** jota dago.» |
| **zirkin** ........................................ | «...eta **zirkin** zakarrak egiten ari da etengabe, goardia zibilei begira.» |
| **kalaka** ........................................ | «...bere eskolak institutu onenetakoak ziren, edanak eragindako **kalaka** totel-motel eta guzti.» |
| **ahogorri** ........................................ | «...inoren galdera **ahogorririk** eta adarjotze alurik gabe.» |
| **diosal** ........................................ | «Oihuak eta **diosalak**, bezperan telebistan emandako programaren bati buruzko esamesak...» |
| **kilima** ........................................ | «Okinak eskua jaso didanean bezalako **kilima**.» |
| **kilimusi** ........................................ | «Batek **kilimusi**, besteak oihu, denak batera ari zaizkit.» |

**Hiztegi azterketa** — *Zorion perfektua.* Anjel Lertxundi. Alberdania.

Izen-deiturak:........................................................................................ Maila-taldea: ....................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **sare-sare** ...................... | «Euria **sare-sare** hasi zuen. Informalaren txanoa jantzi, eta lasterka txikian iritsi nintzen...» |
| **pinpirin** ...................... | «...esan zuen bere **pinpirin** itxuraren guztiz kontrako ahots petral batez...» |
| **kitzikatu** ...................... | «Iggy Pop erekin maiteminduta nengoen, eta ikaragarri **kitzikatzen** ninduen pianoz lagun niezaiokeela pentsatzeak.» |
| **aldarri** ...................... | «...letra goriz idatzitako *Trafikanteak, hormara!* **aldarriak**.» |
| **iltzatu** ...................... | «...begiak testuan **iltzaturik** eta arkatza eskuan...» |
| **barreiatu** ...................... | «Leihorantz begiratzen dut, gela osoan ia kolpean **barreiatu** den argitasunaz harrituta.» |
| **itsumustuan** ...................... | «Bertso bat azpimarratzen dut, **itsumustuan**, zertan ari naizen begiratu gabe.» |
| **loki** ...................... | «...lepoa gorri-gorri jartzen zitzaion, eta **lokiko** zainak, beriz, lehertu egingo zitzaizkiola ematen zuen.» |
| **otzandu** ...................... | «Atertu du, **otzandu** da eguraldia eta, laino artetik kukuka hasi eta gero, eguzkia nagusitzen ari da.» |
| **zabuka** ...................... | «Argi-errainuaren bihotzean, hauts-izpiak airean **zabuka**.» |
| **eite** ...................... | «Hark irakurrita, poema gaitzenak ere beste **eite** bat hartzen du, ulergarri bihurtzen du.» |
| **zimiko** ...................... | «Harridurak **zimiko** egiten dit, irakaslearen asmoaz jabetu bainaiz bat-batean...» |
| **zoli** ...................... | «Ahots **zoliz** irakurtzen du, ondo modulatuz, eta ez zaio arnasa-hotsik entzuten etentxoak egiterakoan.» |
| **laborri** ...................... | «**Laborrizko** gauaren presondegian duzuelarik...» |
| **argi-inarri** ...................... | «...ikasketa burua ikusi nuen ate zabaldu berriko **argi-inarri** hits baten erdian, nitaz galdezka.» |
| **artagabe** ...................... | «Haren ibilera **artagabea** zen, inora iristeko axolarik ez duen horietakoa.» |
| **zola** ...................... | «.Gure oinetakoen hotsa entzuten zen: larruzko **zolaren** tak-tak lehorra ikasketa-buruarenak, gomaren txirri-txirria nireak.» |
| **onetsi** ...................... | «Ertzainek buru-mugimenduak eginez **onesten** dituzte ikasketa-buruaren hitzak.» |
| **antxumatu** ...................... | «Besoak **antxumatuta**, atzera-aurrera laburrak egiten ditu nire aurrean; urduri jartzen nau.» |
| **zurtu** ...................... | «Nahastuta nengoen, **zurtuta**, nora ezaren ezaz.» |

**Hiztegi azterketa** — *Zorion perfektua.* Anjel Lertxundi. Alberdania.

Izen-deiturak:........................................................................................ Maila-taldea: ....................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **balditu** ........................................ | «Une hartan burutazio batek **balditu** ninduen: eta hiltzailea ezagutu zuelako baldin bazegoen Abel hain harriturik? |
| **higuingarri** ........................................ | «...ertzainaren jarrera adeitsu nahia eta iragarki-irribarrea gero eta **higuingarriagoak** zitzaizkidan...» |
| **hutsal** ........................................ | «Edozein, baita **hutsalena** dirudiena ere.» |
| **goritu** ........................................ | «Galdeketa daraman ertzainak betazalak igurzten ditu, begiak zigarro-ketan **gorituak** baititu.» |
| **amaraun** ........................................ | «Euli koitadu bat nintzen, hariak ikusten ez ninzkion **amaraun** bihuri batean harrapaturik.» |
| **ninderabilten** ........................................ | «...ertzainek... batera eta bestera **ninderabilten** nitaz axola gabe.» |
| **galga** ........................................ | «Gaztea nintzen, susmagarria nintzen, **galga** berean zeuden biak.» |
| **kar-kar-kar** ........................................ | «...**kar-kar-kar**, orain argazkilari moduan mozorroturik orain ertzain gisa...» |
| **juzku** ........................................ | «Pertzepzioaren eta **juzkuaren** ahalmenak estaliak bazituzten...» |
| **kurrixka** ........................................ | «Hiltzailearen autoa gurpilen **kurrixkaz** airea erre beharrean sentitu nuenean ere, ni ez nintzen jiratu.» |
| **birao** ........................................ | «Eztandak, tiro hotsak, **biraoak**.» |
| **brastakoan** ........................................ | «**Brastakoan**, klaseen arteko atsedena iragartzen duen txirrinaren iskanbila entzun dut.» |
| **zokor-mazo** ........................................ | «Izu klase horren eraginez erori ziren aita eta bere lagunak **zokor-mazo** haien amarruan.» |
| **xargal** ........................................ | «Kabinako atea zabaltzera noalarik, mutil aurpegi-**xargal** bat ikusten dut kristalaren bestaldean...» |
| **tenkatu** ........................................ | «Goma **tenkatzen** du.» |
| **peto** ........................................ | «...ikasle saiatua eta kirolzale aparta; lider **petoa**.» |
| **trantze** ........................................ | «Pentsatzen ari naiz nola aterako naizen **trantzetik**.» |
| **belarroi** ........................................ | «Atzokoak ez din bueltarik, eta eskerrak, **belarroi** horrek ondo merezia zinan eta.» |
| **arrunkeria** ........................................ | «**Arrunkeria** bat esateko gogoa irentsi, eta presa dudala esaten diot.» |
| **narda** ........................................ | «Horixe bakarrik falta zaio nire barren txarrari: aitaren kezkaren **narda**.» |

**Hiztegi azterketa** — *Zorion perfektua.* Anjel Lertxundi. Alberdania.

Izen-deiturak:............................................................ Maila-taldea: ...................

Testuinguruaa aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **txeratsu** ........................ | «Egunkariko argazkiak egin ditu hain **txeratsu**.» |
| **orbel** ........................ | «...**orbel** ugari zegoen pilatuta belartzetan eta zidoretan...» |
| **zidor** ........................ | «...orbel ugari zegoen pilatuta belartzetan eta **zidorretan**...»» |
| **txoraize** ........................ | «**Txoraize** horrek niri deitu behar zidan, ertzainekin sinpatikoarena egiten ibili ordez!» |
| **pentze** ........................ | «...kamino malkartsu batetik, eta ugalduz joan ziren **pentzeak** eta lursail landuak.» |
| **erauzi** ........................ | «Ipar zuriak zerutik **erauzia** du hezetasun eta lanbro gehiena...» |
| **galai** ........................ | «...Casanovarenak baino enkontru **galaiago** bilakatzen ziren haren hitz irudimentsuetan.» |
| **mataza** ........................ | «...baina ezin dute **mataza** osorik osatu...» |
| **sigi-saga** ........................ | «Muino gaina atzean utzi, eta errepideak **sigi-saga** asko egiten zuen gune batean behera gindoazen.» |
| **estore** ........................ | «**Estorea** jaitsiko duen galdetzen digu *maîtreak*.» |
| **neure kautan** ........................ | «Barre egiten dut **neure kautan**, soinekoa probatu dudala esango banio...» |
| **zirto** ........................ | «...bai amaren kontrako **zirto** gaiztakeriarik gabeak beren horretan hartuz...» |
| **gaitzitu** ........................ | «Aita urduri jartzen da, bistan da nire hitzak **gaitzitu** zaizkiola.» |
| **lakain** ........................ | «Aurpegi meharra; bibote-**lakain** mehe-mehe horietakoa, tabakoak horitua...» |
| **mehar** ........................ | «Aurpegi **meharra**; bibote-lakain mehe-mehe horietakoa, tabakoak horitua...» |
| **ezain** ........................ | «...aberats-berri kutsuko dekorazio dotore-uste **ezaineko** bulego bateraino eraman gintuen.» |
| **hesola** ........................ | «Ia ordu erdi igarota, **hesola** bat ematen zuen gona gorri motzeko neska bat agertu zitzaigun...» |
| **deontologia** ........................ | «Tupustean, argazkilariaren **deontologia** pitzadurarik gabearen berri ematen hasten zaigu...» |
| **pitzadura** ........................ | «Tupustean, argazkilariaren deontologia **pitzadurarik** gabearen berri ematen hasten zaigu...» |
| **trenpu** ........................ | «Aitak, aldiz, ez zuen ez **trenpua** ez neurria galtzen...» |